

2. Iruña Oka: *Aldundiko Batzordearen txostenak eta Iruña Oka Argitzeko Adierazpena*



Arabako Foru Aldundiko Batzordeak 2008ko azaroaren 19an ostrakak faltsuak zirela esanez prentsaurrea eman zuenean, harridura handiz hartu genuen erabakia gai honen inguruan interesa genuenok.. Hurrengo egunean Eliseo Gilen prentsaurrea etorri zen, kola, Miscart eta beste hainbat aipamenekin.

Ondoren, urtarrilaren 17an, Batzordearen txostenak argitaratu ziren alava.net web gunean eta, geroztik eztabaida zabala egon da interneten, prentsan, hitzaldi batzuk... Informazio hau osatu da Eliseoren taldeak argitaratutako ostraken azalpen eta testuekin martxoan.

Iruña Oka Argitzeko Batzordea urtarrilaren 17an sortu zen, gai honetan ikerketa eta eztabaida zientifikoa sustatzeko. Eurek egindako adierazpena jarri da hemen, gai hau behar bezala bideratzea eskatzen duena.

Euskararen Jatorriaren Elkarteak ere lagundu nahi du gai honetan eta Biltzarrean Iruña Okaren gaiari garrantzia ematea horren lekukoa da.



Batzordekideek egindako aipuak, zalantzak sortarazi dituztenak


(hemen esandakoak, ez daude hitzez hitz jasota, hedabideetan agertu den modura baizik).

Madariaga: Keramikek kola dute eta hori nahikoa faltsuak direla frogatzeko → Bere txostenean ez da gai hori buruz ezer agertzen. Zergatik?

Yanguas: Zergatik faltsuak? Adibidez, akats ortografiko eta sintaktiko asko dago → Garai hartan, antza, ez zuten akats ortografikorik egiten.

Lakarra: Descartes eta guzti agertzen da. Zelako falsifikazio eskasa. → Nola esan daiteke horrelako gauza bat?

“Argudio” hau berau Gorrotxategik erabili zuen Bartzelonako hitzaldian



Lorena: Datazioak ez dira egin, Batzordekideen iritziz ezin direlako egin → Orain arte, arkeologian egindako datazio probek gauza guztietarako balio izan dute: aizkora batek 100.000 urte baino gehiago duela, hezur batek 200.000 urte dituela...

Baina ostraka batzuk ezin dira datatu? Ez dago jakiterik zaharrak ala atzo goizekoak diren?

Legardak Cerdanen lana ontzat eman du eta Madariagak ezin dela datatu esan du. Hau ez al da nahikoa datazioak berriro egiteko, kimikari eta geologo gehiago kontsultatzeko ezer erabaki aurretik). Nola ez zen puntu garrantzitsu hau agerpen publikoan aipatu?

Batzordekide guztiek ostrakak faltsuak direla erabaki dute (Hedabideetan adostasun osoa irudikatu zen) → Adostasunik ahal dago?

- 5 txostenek faltsuak direla esan dute: Lakarra, Gorrotxategi, Nuñez, Yanguas, Velazquez

Menciones de los miembros de la Comisión que han creado muchas dudas (estas ideas no están recogidas textualmente, sino son su reflejo en los medios de comunicación.)

Madariaga: Las cerámicas tienen restos de cola lo cual demuestran su falsedad → En su informe no aparece mencionado este tema ¿Por qué?

Yanguas: Una de las razones que demuestran la falsedad son los fallos ortográficos y sintácticos → Por lo visto en aquella época no debían hacer ninguna falta de ortografía.

Lakarra: Aparece incluso Descartes, menuda falsificación. → ¿Como se puede decir algo así?

Este mismo “argumento” lo repite Gorrotxategi en la charla de Barcelona

Lorena: No se han repetido las dataciones porque los miembros de la Comisión dicen que no se pueden hacer → Hasta ahora la arqueología y disciplinas correspondientes han sido capaces de datar un hueso de hace 200.000 años, un hacha de hace 100.000 años...

Pero resulta que una ostraca es imposible datar. ¿no se puede saber si son de anteaer o de hace unos cientos de años?

Legarda confirma el trabajo de Cerdán y Madariaga concluye que no se pueden saber las fechas. ¿No es esto suficiente para volver a realizar más dataciones, consultar a más químicos y geólogos antes de decidir nada? ¿Cómo no se reflejó este punto tan importante en la comparecencia?

Todos los miembros de la Comisión de la Diputación han decidido que las ostracas son falsas (al menos en los medios se reflejó auténtica unanimidad). → ¿Hay unanimidad?

- 5 informes que dicen que son falsas: Lakarra, Gorrotxategi, Nuñez, Yanguas, Velazquez



- 2 zalantza oso handiak: Trebolle, Galan
- 1 ez egiazkoak ez faltsua: Madariaga (irratian kolarena esan zuen baina txostenean ez du ezer esaten)
- 4 aldeko txosten: Illarregi, Fernandez-Morillo, Ulrike, Legarda
- 2 Informes que muestran serias dudas: Trebolle, Galan,
- 1 Ni falsas ni verdaderas: Madariaga (en la radio dijo lo de la cola pero en el informe dice expresamente que no se puede demostrar si son verdaderas o falsas)
- 4 Informes a favor: Illarregi, Fernandez-Morillo, Ulrike, Legarda

9ko agerpenean kontra zeudenak bakarrik gonbidatu zituzten, ez alderdi biak, egin behar izan zen bezala iritzi guztiak erakusteko. BATZORDEAK EZ DU AHO BATEZ FALTSUAK DIRELA ERABAKI.

En la comparecencia del 19 de noviembre solo invitaron a los miembros que estaban en contra, no a las dos partes como se debía haber hecho para poder recoger todas las opiniones. LA COMISION NO HA DECIDIDO POR UNANIMIDAD QUE SON FALSAS.

Iruña Okako indusketa ez da bisitatu eta lanean egon diren pertsonak ez dira elkarrizketatu. Batzordekideek horrela azterketa sakona egin ahal izan dute?

No se han visitado las excavaciones de Iruña Veleia ni se ha interrogado al personal que estuvo trabajando, han encontrado el delito. ¿ La Comisión ha podido así hacer un trabajo concienzudo así?

Batzordearen txostenen datak: Sinestezina! Batzordeak egindako 10 txostenetatik bakar batek dauka 2008.11.19 egunaren aurreko data. Egun horretan Lurmen indusketetatik kanporatzen zuen foru agindua egin zen.


Las fechas de los informes de la Comisión: ¡Incredible! De los 10 informes de la Comisión, solo uno tiene fecha anterior al 19.11.2008, día en el cual se elaboró la orden foral que expulsaba a Lurmen de las excavaciones.

Beraz, Aldundiak azaroaren 19an onartutako foru aginduak, data hori baino beranduagoko data duten txostenetan oinarritu egin da.

Por tanto, la orden foral que aprobó la Diputación el 19 de noviembre se ha realizado en base a informes posteriores a dicha fecha.

Data egokia duen txosten bakarrak, Gorrotxategirenak, balizko ostraka "faltsuak" zehazten zituen. Batzordeak 5 hilabete izan zituen horietako batzuk datatzeko (kaltzita aztarnak zituztenak...) baina ez du egin.

El único informe con fecha adecuada, el de Gorrotxategi, indicaba qué ostracas podían ser "falsas". La Comisión tuvo 5 meses para datar algunas de éstas (las que tenían restos de calcita...), y sin embargo no lo hizo.



Txostenak Informes	Datak Fechas
Valoración arqueológica realizada por el Area de Arqueología de la Facultad de Filología, Geografía e Historia de la UPV/EHU, con la colaboración de Dominic Perrign y Marco Milanese sobre el "Informe conjunto arqueológico de Iruña-Veleia (Trespuentes-Villodas, Iruña de Oca, Álava)"	2008.12.03
Informe de D. Julio Nuñez, del Departamento de Arqueología de la Facultad de Filología, Geografía e Historia de la UPV/EHU, sobre los motivos iconográficos presentes en los denominados "Grafitos de carácter excepcional" del conjunto arqueológico Iruña-Veleia. (0,7 Mb)	2008.12.04
Informe de Dña. Pilar Ciprés Torres y D. Juan Santos Yanguas, del Departamento de Estudios Clásicos de la Facultad de Filología, Geografía e Historia de la UPV/EHU, sobre epigráfico-histórico sobre los graffiti hallados en Iruña Veleia en 2005-2006. (1 Mb)	2008.11.20
Informe de Dña. Isabel Velázquez, del Departamento de Filología latina de la Universidad Complutense de Madrid, sobre los grafitos latinos de Iruña-Veleia. (4,6 Mb)	Data barik Sin fecha
Dictamen de D. Joaquín Gorrochategui, del Departamento de Estudios Clásicos de la Facultad de Filología, Geografía e Historia de la UPV/EHU, sobre los hallazgos epigráficos de Iruña-Veleia. (7 Mb)	2008.06.25
Informe de D. Joseba Lakarra, del Departamento de Filología Vasca de la Facultad de Filología, Geografía e Historia de la UPV/EHU, sobre supuestas inscripciones eusquéricas antiguas de Veleia. (0,9 Mb)	2008.12.03*
Informe de D. Julio César Trebolle, del Departamento de Hebreo y Arameo de la Facultad de Filología de la Universidad Complutense de Madrid. (0,08 Mb)	2008.11.24
Informe de D. José Manuel Galán, del Centro de Ciencias Humanas y Sociales del Consejo Superior de Investigaciones Científicas, sobre los grafitos con supuestos signos jeroglíficos y nombres egipcios. (0,08 Mb)	2008.12.10
Informe de D. Juan Manuel Madariaga, del Departamento de Química Analítica de la Facultad de Ciencia y Tecnología de la UPV/EHU, sobre Análisis Químicos del proyecto de estudio e investigación del Yacimiento de Iruña-Veleia. (7,9 Mb)	Data barik Sin fecha
Informe de D. Fernando Legarda, del Departamento de Ingeniería Nuclear y Mecánica de Fluidos de la Escuela Técnica Superior de Ingeniería de la Universidad del País Vasco. (0,3 Mb)	Data barik Sin fecha

*Azalean 2008.11.19ko data agertzen da baina zigilua abendukoa da.

En la portada aparece la fecha del 19.11.2008 pero el sello es de diciembre.



Iruña Oka argitu dezagun

Arabako Foru Aldundiak Iruña Okako indusketez arduratzen zen Lurmen enpresari lana egiteko baimena kendu dio, Eliseo Gil eta bere taldea publikoki gezurtizat hartu ditu eta mediatikoki sekula konpondu ezingo den irudia sortarazi du. Eta hori guztia egiteko, gaur egun, ez dakigu funtsezko arrazoirik egon den ala ez, zalantza izugarriak daudelako:

a) Datazioak ez dira berriz egin

Orain arte, laboratorio hauek egindako datazioen arabera ostrakak orain 1700 urte inguru egindakoak dira: Geochron (Cambridge-Massachussets), Gröningen Unibertsitatea (Holanda), CEA-CNRS (Frantzia) eta Adirondack (Euskal Herria). Gaur egun zientziak zeramika batean egindako idazkun bat oraintsu edo orain ehunka urte batzuk egin den jakiteko aukera ematen du. Zergatik ez dira datazioak berriz egin nahi?

b) Indusketak ez dira bisitatu

Aldundiko Batzordeko kideak ez dira Iruña Okara joan gauzak ondo aztertzeraz: ostrakak zein leku zehatzetan aurkitu diren, kokapenak, estratoak...Normala al da egindako indusketak ikustera ez joatea, lan hori sakonki aztertu nahi baldin bada?

c) Harremanik ez da egon batzordekide eta arkeologoen artean

Batzordeko kideak ez dira 10 arkeologoekin egon, gauzak ondo aztertzeko: egindako lan arkeologikoa, jarraitutako prozedurak, etab. Txostena irakurrita eman dute euren irizpidea. Ez al zen ezinbestekoa langile horiei guztiei galdetzea haien lanari buruzko emaitza bat eman baino lehen?

d) Alegazioak egiteko epea epaiaren ostean jarri dute

Prozesu serio batean, indusketak bisitatzeaz gain, arkeologoak elkarrizketatzeaz gain eta datazioak berriro egiteaz edo berrestez gain, azken txostenak denon esku jarriko ziren berriro, azken erabakia hartu baino lehen, Eliseo Gilek erantzuteko aukera izateko. Kasu honetan ez da horrela egin eta epaia eman ondoren (kaleratzea eta langabeziara) alegazioak emateko epea jarri dute. Eliseok aurkeztuko dituen alegazioek, lintxamendu mediatiko honen ostean, zerbaiterako balioko al dute orain?

e) Filtrazio asko egon da eta isilpekotasuna hautsi dute

Jendeari informazio guztia bi urtez ukatu zaion bitartean, azken aste hauetan lau filtrazio baino gehiago egon dira gai honen inguruan, iritzi publikoa "moldatzen" laguntzeko. Horrez gain, batzordekide batek bere hitza ez du bete, isilpekotasuna hautsiz. Honelako portaerak onargarriak al dira honelako prozesu batean?

f) Txostenei buruz esandako eta argitaratutakoa

Gaurko egunez txosten batzuk interneten eskegitzen hasi dira. Horietako bat kimikaria den batzordekidearena da. Aldundiko agerpen publikoan ostraketan kola aztarnak agertzea faltsuak direla esateko erabili zuen. Txosten hori irakurri berri dugu eta ez dago kolari buruzko aipamenik. Txostenak aldatu al dira agerpen publikotik orain argitaratzen hasi diren arte?

g) Faltsifikazioak egiazkotzat hartzeko egiten dira normalean

Arkeologian, artean edo bestelako jardueretan, faltsifikazioak egiazkotzat har daitezten egiten dira. Beraz, zentzurik ba al dauka iruzur egile batentzat hainbeste hitz, horietako asko gazteleraz eta banaka batzuk italieraz eta irlandez ostraketan idazteak?

Zalantza guzti horien aurrean, honako eskaera hau egiten diogu Arabako Foru Aldundiari:



1. **Idazkunen datazioak berriz egitea** beste laboratoriorik batzuetan eta gai honetan gaitasun handiena duten adituek eginda.
2. **Lurmen enpresarekin duen hitzarmena jarraitzea.** Ostrakak gezurrezkoak izateko aukera handiak badaudela onartuta ere, egiazkoak ere izateko arrazoiak ez dira falta: laboratoriorik datazioak, topatu diren lekua (estratoak), gaztelaren sorrerari buruzko bestelako teoriak, etab. Beraz, Aldundiak beste zuzendaritza bat sar dezake Iruña Oka baino Lurmenekin batera lan egiteko.
3. **Informazio eta eztabaida epe luze bat irekitzea.** Bi urteko epean eta material guztia interneten bidez denon esku jarri ondoren, aurkitutako hitz eta ostrakak egiazkoak ala ez izan daitezkeen nazioarte mailako eztabaida publiko eta irekia sustatzea. Lehendabizi, maila arkeologikoan atera beharko liratekeen ondorioak eta, bigarren maila batean, gai honi dagozkion gainerako jakintza arloetan.
4. **Ostraka guztiak behar bezala babestuta egotea,** etorkizunean egin daitezkeen datazioak berriz egin ahal izateko eta gure ondarearen pieza garrantzitsuak izateko aukera oraindik badutelako.

Testu hau Iruña Oka argitzeko Adierazpena da. Orain arte informazioa ezkutatu da (ostrakak, bi hilabetez txostenak...) eta eztabaida zabal, ireki eta kontrastatua egin beharrean, linternean mediatikoa baino ez dugu ikusi.

Horregatik, Koordinakundeko kideok euskaraz eta euskal kulturaz kezkatzen diren herritar guztiei Adierazpen hau izenpetzeko gonbitea egiten diegu (irternetez egin daiteke: iruñaoka.net), zientziak eta arkeologiak merezi dutelako.

Gasteiz, 2009-01-17

*Iruña Oka Argitzeko Batzordea
Comisión para el Esclarecimiento de Iruña Veleia*

